

4.

# FINANTZA KUDEAKETAREN BALANTZEA



## 4. Finantza-kudeaketaren balantzea

### 2009. urteko aurrekontuko likidazioaren egoera-orri bateratua

#### GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA SAILKAPEN EKONOMIKOA

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak Gehitzeak/Murrizteak	Behin betiko aurreikuspena
Langileria-gastuak	1	86.353.500,00	-307.930,00	86.045.570,00
Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak	2	78.367.557,00	459.928,98	78.827.485,98
Finantza gastuak	3	5.736.500,00	51.000,00	5.787.500,00
Transferentzia arruntak	4	10.129.017,00	34.000,00	10.163.017,00
Inbertsio errealak	6	98.721.223,00	63.460.824,47	162.182.047,47
Kapital transferentziak	7	13.172.100,00	4.144.962,37	17.317.062,37
Finantza-aktiboak	8	2.257.200,00	0,00	2.257.200,00
Finantza-pasiboak	9	3.596.500,00	0,00	3.596.500,00
<b>Gastuak guztira</b>		<b>298.333.597,00</b>	<b>67.842.785,82</b>	<b>366.176.382,82</b>

#### DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN BETETZE-MAILA. SAILKAPEN EKONOMIKOA

Kontzeptua	Kap.	Hasierako aurreikuspena	Aldaketak Gehitzeak/Murrizteak	Behin betiko aurreikuspena
Zuzeneko zergak	1	49.636.900,00	0,00	49.636.900,00
Zeharkako zergak	2	6.000.000,00	0,00	6.000.000,00
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3	31.890.800,00	0,00	31.890.800,00
Transferentzia arruntak	4	91.977.952,00	60.998,98	92.038.950,98
Ondareko diru-sarrerak	5	4.909.601,00	0,00	4.909.601,00
Inbertsio errealak besterentzea	6	4.828.600,00	49.756,63	4.878.356,63
Kapital transferentziak	7	35.751.260,00	39.672.652,12	75.423.912,12
Finantza-aktiboak	8	2.182.150,00	25.194.259,51	27.376.409,51
Finantza-pasiboak	9	71.156.334,00	28.804.158,48	99.960.492,48
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>		<b>298.333.597,00</b>	<b>93.781.825,72</b>	<b>392.115.422,72</b>



Aitortutako betebeharrak	Likidatutako ordainketak	Ordaintzekoak	Betetze-maila (%)	Aitortutako guztizkoaren %
84.428.674,38	83.897.394,41	531.279,97	% 98,12	% 29,70
73.476.801,35	61.269.443,54	12.207.357,81	% 93,21	% 25,84
2.671.636,19	2.623.822,05	47.814,14	% 46,16	% 0,94
9.846.855,44	6.534.558,18	3.312.297,26	% 96,89	% 3,46
99.971.330,62	83.500.143,09	16.471.187,53	% 61,64	% 35,16
8.314.000,95	6.550.864,23	1.763.136,72	% 48,01	% 2,92
2.000.035,68	1.997.035,68	3.000,00	% 88,61	% 0,70
3.596.098,42	3.596.098,42	0,00	% 99,99	% 1,26
<b>284.305.433,04</b>	<b>249.969.359,60</b>	<b>34.336.073,44</b>	<b>% 77,64%</b>	<b>% 100,00%</b>

Aitortutako eskubideak	Likidatutako kobrantzak	Kobratzekoa	Betetze-maila (%)	Aitortutako guztizkoaren %
50.333.316,28	47.072.900,97	3.260.415,31	% 101,40	% 17,05
8.750.879,28	8.024.755,49	726.123,79	% 145,85	% 2,96
32.052.168,34	29.534.229,03	2.517.939,31	% 100,51	% 10,85
90.853.656,61	88.217.223,12	2.636.433,49	% 98,71	% 30,77
2.425.193,50	2.322.226,00	102.967,50	% 49,40	% 0,82
13.091.020,05	12.994.946,70	96.073,35	% 268,35	% 4,43
63.680.547,20	40.161.178,87	23.519.368,33	% 84,43	% 21,57
2.099.408,33	1.531.952,60	567.455,73	% 7,67	% 0,71
32.000.000,00	32.000.000,00	0,00	% 32,01	% 10,84
<b>295.286.189,59</b>	<b>261.859.412,78</b>	<b>33.426.776,81</b>	<b>% 75,31</b>	<b>% 100,00</b>


# 4. Finantza-kudeaketaren balantzea

## 4.1. Aurkezpena

*Udalak egindako gastu bateratua  
284,3 milioi euro izan zen.*

Iruñeko Udalaren Kontu Orokorrean, 2009ko ekitaldiari dagokionez, ondokoak azpimarka daitezke:

- **Gastu bateratua** 284,3 milioi euro izan da, eta horrek esan nahi du % 26ren gehikuntza izan dela 2008ko likidazio bateratuaren aldean. Diru-sarrera bateratuak 295,3 milioi euro izan ziren, hau da, aurreko ekitaldian baino % 6,4 gehiago.
  - Jarduneko **langileei zein langile pasiboiei dagozkien ordainsarien gastuak** 84,4 milioi euro izan ziren, hots, gastu guztiaren % 26,26. Kapitulu hau % 4,2 igo da aurreko urtekoarekin konparatuta, eta betetako aurrekontuan hartu duen pisua ere handitu da, gastuen guztizkoa murriztu delako, batez ere inbertsioei dagokien gastuan izandako gehikuntza dela medio.
  - Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak eragindako **gastu arruntak** 73,5 milioi euro dira, gastu osoaren % 22,9.
  - **Finantza-gastuak** % 5,5 jaitsi ziren, interes-tasak murriztu zirelako, 2009. urtearen tarte luze batean eta, batez ere, 2008. urtearen bukaeran, hain zuzen ere, interes-tasa aldakorra duten udal-mailegu gehienak berraztertzen diren garaian.
  - **Maileguen amortizazioak** 3,6 milioi euro jo zuen, 2008an baino % 28,5 gehiago. Finantza-zama, osorik, interesak eta amortizazioa barne hartuta, 6,3 milioi euro izan zen, aitortutako gastu osoaren % 1,9.
  - **Transferentzia arruntak** 9,8 milioi euro izan dira, % 9,64 handitu direlarik, aurreko urtekoen aldean. Betetako gastu guztiaren % 3,1 egiten dute.
- Inbertsio errealei** dagokien kapituluaren betetze-maila nabarmen handitu da, zehazki, % 91,2, aurreko ekitaldikoaren aldean. Izan ere, 137,1 milioi izan da, hau da, egindako guztizkoaren % 42,7, batez ere Lezkairuko urbanizazio-lanak egiten izanaren ondorioz.
- **Kapital-transferentziek** % 28,5 egin dute behera, 8,3 milioi euro izateraino, batez ere Alde Zaharreko kirol-ekipamenduetan eta etxebizitzetan egin beharreko jarduketetarako, Pamplona Centro Histórico enpresari egindako ekarpen txikiagoa dela bide. Adierazi behar da entitate hori ez dagoela bateraturik, aurrekontuaren betetze-mailari dagokionez.
  - **Kapital-eraketa gordinerako zuzkidurak**, hau da, Udalaren inbertsioetarakoak zein hirugarrenek egindakoen finantzamenduan parte hartzeak, 145,4 milioi euro izan ziren, hau da, 2008an baino 62 milioi euro gutxiagoak eta 2007an izandakoen antzerakoak.
  - **Diru-sarrera bateratuetan** zenbateko handiena, 90,9 milioi euro, 4. kapituluko transferentzia arrunteei zegokien. Kopuru horrek eta kapital-transferentziei dagokien 7. kapituluko 63,7 milioiek, batera hartuta, likidatutako guztizkoaren % 52,3 egin zuten.
  - **Zuzeneko zergei zegozkien likidazioak** % 6,6 handitu ziren, 50,3 milioi euro jotzeraino, eta zeharkako zergen bidezko diru-sarrerak (EIOIZ, eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga) % 23,1 igo ziren, eta 8,7 milioi euro izatera iritsi ziren.
  - Azkenik, **diru-sarrieren** 6. kapituluak -non ondare-besterentzeen zenbatekoa jasotzen baita- 13,1 milioi euroren betetze-maila izan zuen, hots, 2008an baino % 65,1 gutxiagokoa, eta ez da islatua geratu Hirigintza Gerentziari bateratze-doiketengatik egindako salmenta.
  - **Mailegu berriak** kontratatu dira (9. kapituluak, finantza-pasiboak) 32 milioi euroren truke (15, Udalak, eta 17, Hirigintza Gerentziak), finantzaketa mota horren behin betiko aurrekontua 100 milioi izan denean; beraz, 2009an likidatutako diru-sarrera guztien % 10,8 da.



> Hiria airetik ikusita; erdian, Ziudadela

*Proiektatzeko moduak*

# 4. Finantza-kudeaketaren balantzea

## 4.2. Aurrekontuaren betetze-maila

Iruñeko Udalak 198.491 bizilaguneko populazioa zuen 2009ko urtarrilaren 1ean, 2010eko maiatzaren 10eko 57. NAO n argitara emandako datu ofizialen arabera. Populazio-datu horiek erabili izan dira aurrekontu-adierazleak eta -ratioak kalkulatzeko. Bere jarduna garatzeko, Udalak ondoko erakunde autonomo eta entitateak sortu ditu:

- **Administrazioko sektore publikoa** deitu daitekeenaren barruan, hau da, administrazio-zuzenbidearen arauetara loturik dagoen sektorearen barnean, Iruñeko Udaleko Hirigintza Gerentzia eta Iruñeko Udaleko Haur Eskolak ditugu.
- **Enpresa publikoen sektorea:** bertan kokatzen dira Udalak bakarrik parte hartzen duen enpresak, hala nola Comirufña, Pamplona Centro Histórico eta Udal Laguntza Etxean SA-Asimec, Udala partaide nagusi dutenak, adibidez, Asociación Navarra de Informática Municipal-Animsa eta Mercairufña, eta Biltzar Bulegoa edo Convention Bureau izenekoa, non Udalak parte txiki bat baino ez baitu. Partaidetzei buruzko datuak koadro batean laburbildu dira. Sozietate horiek guztiak merkataritza-lege orokorrean daude lotuta,

kontabilitateari dagokionez, baina horrek ez du galarazten haien urteko kontuak (partaidetza nagusia den kasuetan) Udalaren Kontu Orokorrean sartzea.

- Aurrekoetz gain, Udalak bi **fundazio** ditu, Gayarre Antzokiarrena eta Erruki Etxearena. Horiek, fundazio direnez, estatutu juridiko berezia daukate.

Kontu bateratuan ondokoak sartzen dira: Udalaren eta bere bi erakunde autonomoen likidazio bateratua eta egoera-balantze bateratua, non, hiru entitateekin batera, Comirufña, S.A., Pamplona Centro Histórico, S.A., eta Udal Laguntza Etxean SA-Asimec sartzen baitira. ANIMSA eta Mercairufña, S.A. eranskin gisa jasotzen dira Kontu Orokorrean. Bi fundazioen kontuak ere sartzen dira Kontu Orokorrean, Osoko Bilkurak onesteko, Comptos Ganbarak emandako gomendioei jarraiki.

Udalaren eta erakunde autonomoen aurrekontu-likidazioaren betetzeari buruzko daturik adierazgarrienak aurkezten dira.

Erakundea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak
Udala	252.411.111,24	294.349.522,61
Hirigintza Gerentzia	84.895.335,03	54.037.916,03
Haur Eskolak	7.444.637,05	7.344.401,23

Hona entitate nagusiak haren erakunde autonomoei egindako ekarpenak, transferentzia arruntez zein kapital-transferentziaz bezainbatean:

Kontzeptua	Hirigintza Gerentzia	Haur Eskolak
Transferentzia arrunta	0,00	5.260.297,50
Kapital-transferentziak	1.404.755,24	290.000,00
<b>Guztira</b>	<b>1.404.755,24</b>	<b>5.550.297,50</b>

10 milioi euroko transferentzia arrunta izan da, Hirigintza Gerentziatik Iruñeko Udalera

> **Hirigintza Gerentziaren** kontuak Gerentziaren Kontseiluak onetsi zituen, 2010eko martxoaren 31n. Ikuskatu dira, eta txostenak aldeko iritzia jaso du, ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidelaren islari dagokionez, eta legezketasun-printzipioarekin bat, aurrekontuez, kontratazioaz eta langileriaz bezainbatean.

> **Haur Eskolen** Erakunde Autonomoaren kontuak haren batzordeak onetsi zituen, 2010eko martxoaren 29an. Horiek ere ikuskaturik daude. Ikuskapen-txostenak aldeko iritzia eman zuen, kontuei eta ekonomia- zein finantza-jardunari buruz, betiere legezketasun-printzipioarekin bat, aurrekontuez, kontratazioaz eta langileriaz bezainbatean.



Hona datu esanguratsuenak, Udala partaide nagusia duten sozietatei buruz:

Izena edo izen soziala:	Jarduera nagusia	Zuzeneko partaidetza (%)	Ikuskatua
Comirufña, S.A.	Txikikazko merkatuak	% 100,00	Bai
P.C.H., S.A.	Hirigune historikoko hirigintza	% 100,00	Bai
Asimec, S.A.	Etkez etxeko laguntza	% 100,00	Bai
Mercairufña, S.A.	Handizkako merkatua	% 51,00	Bai
Animsa, S.A.	Udaleko Informatika	% 77,69	Bai

Enpresa	Emitza-kontua (gastuak)	Emitza-kontua (diru-sarrerak) Diru-sarrerak	Emitza ekonomikoa
Comirufña	517.308,19	645.084,53	127.776,34
P.C.H., S.A.	1.516.318,89	1.139.846,53	-376.472,36
Mercairufña	1.176.160,06	1.424.429,96	248.269,90
ANIMSA	7.336.146,00	7.450.554,00	114.408,00
ASIMEC, S.A.	1.199.250,49	1.271.141,00	71.890,51

**Comirufña, SAK** irabaziak zituela itxi zuen 2009ko ekitaldia, zehazki, 127.776,34 euro, jardun arruntak eragindakoak. Ikuskapen-txostenean aldeko iritzia jasota dago, kontuei buruz. Kontuak Administrazio Kontseiluak aurkeztu zituen 2010eko martxoaren 29an, eta akziodunen batzar nagusiak 2010eko maiatzaren 28an onetsi zituen.

**Pamplona Centro Histórico, SAK** Administrazio Kontseiluak egindako kontuak aurkeztu zituen 2010eko martxoaren 31n, behar bezala ikuskaturik eta aldeko iritzia zutela, islaren fideltasunari eta legezotasunaren betetzeari dagokionez. 2009an 376.472,36 euroko emitza negatiboa izan du. Hala ere, diru-laguntzak ondare garbiaren aldaketa gisara kontabilizatu dira, eta ondare garbia 3.532.270,03 euro hazi da. Kontuak onesteko akziodunen Batzar Nagusia 2010eko maiatzaren 31n egin zen.

**Mercairufña, S.A.** sozietateak emitza positiboa zuela itxi zuen 2009ko ekitaldia, zeinak, zehazki, 248.269,90 euro jo baitzuen, gehien bat, jardun arruntetik eratorriak. Ikuskapen-txostenean aldeko iritzia jasota dago, kontuei buruz. Urteko kontuak Administrazio Kontseiluak aurkeztu

zituen 2010eko otsailaren 25ean, eta akziodunen Batzar Nagusiak 2010eko maiatzaren 27an onetsi zituen.

**ANIMSAk** aurkeztutako ekitaldi-emitza ere positiboa da: 114.408 euro. Jardun arruntak eragindako mozkinak 110.636 euro dira, eta finantza-emitza positiboak 3.772 euro sortu dituzte. ANIMSAren kontuei buruzko ikuskapen-txostenak aldeko iritzia jaso zuen, irudi fidelaren islari dagokionez. Tokiko Gobernu Batzarrak 2009ko martxoaren 10ean hartutako erabakiaren bitartez, enpresaren eta beste hainbat toki erakunderen 29 akzio saldu ziren, eta parte-hartze portzentajeak berriz kalkulatu ziren. Kontuak Administrazio Kontseiluak aurkeztu zituen 2010eko martxoaren 25ean, eta akziodunen Batzar Nagusiak 2010eko ekainaren 7an onetsi zituen.

**Asistencia Municipal en Casa, SA** sozietatearen ekitaldi-emitza positiboa izan zen, 71.890,51 euroekin. Ikuskapen-txostenak aldeko iritzia jaso zuen kontuen isla fidela denaz bezainbatean. Administrazio Kontseiluak 2010eko martxoaren 26an aurkeztu zituen kontuak, zeinak akziodunen Batzar Nagusiak 2010eko ekainaren 4an onetsi baitzituen.

## 4. Finantza-kudeaketaren balantzea

Fundazioei dagokienez, hona haien gastu eta diru-sarrerei buruzko datuak:

Fundazioa	Emitza-kontua (gastuak)	Emitza-kontua (sarrerak)	Emitza ekonomikoa
Gayarre Antzokia udal-fundazioa	2.351.628,26	2.274.040,21	-77.588,05
Erruki Etxea	18.081.368,54	15.570.446,32	2.510.922,22

**Gayarre Antzokia udal-fundazioaren** kontuak 2010eko apirilaren 20an onetsi zituen Patronatu Batzordeak. Ikuskapen-txostena aldekoa izan zen. Ekitaldiko emaitza negatiboa ustiapenaren emaitzek eragin zuten batez ere.

**Erruki Etxearen** kontuak 2010eko martxoaren 8an aurkeztu zitzaizkion Udalari. Bertako mozkinak 2.510.922,22 euro jo zuten. Ikuskapen-txostena aldekoa izan zen, salbuespen batekin, zeina Fundazioari sozietateen gaineko zergaren likidazioa eskatzeko posibilitateari baitagokio. Baina txostenak berak dioenez, Ogasun Publikoak berak ez dio eskatu entitateari zerga hori.

**Mankomunitateak.** Iruñeko Udala Iruñerriko Mankomunitatearen parte da. Mankomunitate horren bitartez ematen ditu uraren ziklo osoari (ur-hornidura eta behe-saneamendua), hiri-hondakin solidoen tratamenduari eta hiri-garraioari (autobus- eta taxi-zerbitzuak) dagozkien zerbitzuak.

2009an ez da gasturik egin, Iruñeko Udalaren aurrekontuan, hiri-garraioa finantzatzeko. Behin 2005eko irailaren 1ean Udalbatzaren Osoko Bilkurak taxi-zerbitzua kudeatze aldera Iruñeko Udala Mankomunitatean sartzeko erabakia (13/CC) hartuta, xedatuta gelditu zen lizentzia berriak esleitzeagatik jasotako diru-sarrerek finantzatzeko zituztela Iruñeak Iruñerriko Garraioaren Plani egin beharreko ekarpenak, diru-sarrera horiek agortu arte.

**Partzuergoak.** Suteak itzaltzeko zerbitzu publikoa Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren bitartez gauzatzen zen. 2006ko uztailaren 4ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez (19/CP), Iruñeko Udalbatzak Nafarroako Gobernuarekin batera izenpetu beharreko agiria onetsi zuen, Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa desegin eta, horrekin batera, bi erakunde menpeko zeuden zerbitzuak Nafarroako Larrialdietako Agentzian sartzeko.

### Aurrekontua eta herritarrak

Herritarrak kontuan harturik Udalaren aurrekontuaren betetze-maila finkatua aztertuz gero, ikus daiteke 2009an egindako diru-sarrera 1.488 euro izan dela, biztanle bakoitzeko; gastua, aldiz, 1.432 eurokoa izan da, biztanle bakoitzeko.

Diru-sarrera guztien ia bosten bat udal-eskumeneko zergetatik etorri zen, eta horrek esan nahi du pertsona bakoitzak, batez beste, 297,7 euro jarri zituela.

Bestetik, modu bateratu batean hartuta, zerbitzuak eman, jarduerak egin eta jabari publikoa erabiltzeagatik kobratutako tasa eta prezio publikoen, ondasun higigarri eta higiezin salmentaren, ondareko diru-sarreraren eta aurrerakin zein maileguen itzulerean bitartez, 250,2 euro eskuratu ziren biztanleko. Tranferentzia arruntek (Hiriburutza Agiria, Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetako partaidetza eta beste zenbait ekarpen) biztanle bakoitzeko eragindako diru-sarrera 457,7 euro izan ziren. Biztanleko beste 320,8 euro jaso ziren, kapital-transferentziak eta kapitaleko bestelako diru-sarrerak zirela medio.

Egindako gastua osorik hartuta, Iruñeak horren % 65,3 -hau da, 935 euro, biztanleko- komunitate-ongizatearekin zerikusia zuten gastuak estaltzeko erabili zen: hirigintza, ingurumena, hezkuntza, kultura, kirola eta abar. Gastu horren atzetik dator segurtasunean, babesean eta gizarte-sustapenean egindakoa, zeina gastu osoaren % 15,8 baita, hots, 227 euro pertsona bakoitzeko.

2009ko finantza-zama 32 euro izan da, biztanleko. Zor bizia biztanleko 507 euro ziren, 2009ko abenduaren 31n, hain zuzen, 2008koa baino 199 euro gehiago, biztanleko.



## 4.3. Likidazioa

Atal honetan Iruñeko Udalari, Hirigintza Gerentziari eta Haur Eskolei dagokien likidazio bateratua aztertzen da.

### Ezaugarri orokorrak eta aurrekontu-aldaketak

2009ko udal-aurrekontua 2008ko abenduaren 19ko Osoko Bilkuran onetsi zuen, hasiera batez, Iruñeko Udalbatzak.

Diru-sarreraren hasierako aurrekontu bateratua (Udalaren, erakunde autonomoen eta Udalaren erabateko partaidetza duten sozietateena) 299.132.210 euro izan ziren. Gastuen aurrekontua, ordea, 299.114.355 euro ziren.

Sozietateak alde batera utzirik (Comirufña, SA, Pamplona Centro Histórico SA eta ASIMEC, SA), -horiek ez baitira bateratzen, aurrekontu-betetzeari dagokionez-, diru-sarreraren eta gastuen hasierako aurrekontuaren guztizko bateratua, 4. eta 5. orrialdeetako laukietan jasotakoa, 298.333.597 euro izan zen (hiru entitateen arteko bateratze-doiketak kendu ondoren). Udalaren hasierako aurrekontuak 257.040.297 euro jo zuen, Hirigintza Gerentziarenak, 90.261.900 euro, eta Haur Eskolenak, 8.153.730 euro.

2009ko ekitaldian barna, hainbat aldaketa garrantzitsu egin ziren, Udala osatzen duten entitateen aurrekontuan, aldatuz joan ziren beharren arabera egokitze aldera. Aldaketa guztiak batera hartuta 67,8 milioi euro handitu zuten aurrekontu bateratua, gastuen egoera-orrietan. Behin betiko aurrekontu bateratua 366.176.382,82 euro jo zituen, gastuetan, eta 392.115.422,72 euro, diru-sarreretan. Diferentzia, 25.939.039,9 euro guztira, Udalak 2008ko abenduaren 31n gastu orokorretan zeukan diruzaintzako geldikin negatiboa finantzatzeko sortutako aurrekontu-baliabideen soberakinari dagokio. Hori 2009ko urriaren 16ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez onetsi zuen Udalbatzak (4/CP).

Hona haien tamaina dela-eta garrantzi handiena izan zuten aldaketak: 2008ko aurrekontutik ekarritako kreditu-geldikinaren sarrerak eta 2008ko abenduaren 31n negatiboa zen gastu orokorren diruzaintzako geldikinaren finantzazioa.

### Gastuen aurrekontuaren betetze-maila

2009ko ekitaldiko aitortutako betebeharrak 284,3 milioi euro izan ziren, hau da, 366 milioi euro jo zuen behin betiko aurrekontu bateratuaren % 77,53. Hau izan da betetze-maila, zehazki, bateratutako entitate bakoitzean:

Udala	% 82,10
Hirigintza Gerentzia	% 72,13
Haur Eskolak	% 91,30

Gastua kapituluka sailkatuta, portzentajerik handiena inbertsio errealei buruzko 6. kapituluari zegokion, horrek gastuaren % 35,16 hartu baitzuen (100 milioi). Horren ostean, langileria gastuak biltzen dituen 1. kapitulua dator, non gastuaren % 29,7 egin baitzen, eta ondasun arruntei eta zerbitzuei dagokien kapitulua, 2.a, %25,8ko portzentajearekin (61,3 milioi euro).

2009an ekitaldi arrunteko ordainketak 250 milioi euro izan ziren, 34,3 milioi euro ordaintzeko gelditu zirelarik. Horrenbestez, betebeharren edo ordainketaren betetze-maila % 87,92koa izan zen.

Eginkizun-multzoen arabera aztertuz gero, gizarte-izaerako ondasun publikoak -hots, hirigintza, kultura, hezkuntza, kirola, ingurumena eta osasuna- ekoizteak ekarri zuen gastu-portzentaje handiena, hain zuzen, gastu osoaren % 65,31. Horren ostean, gizarte-babesari eta -sustapenari dagozkien zerbitzuak -gizarte-zerbitzuak alegia- zetozen, % 15,82ko gastuarekin, eta babes zibilari eta herritarren segurtasunari dagozkienak, horiek gastu osoaren % 8,98 izan zirelarik.

## 4. Finantza-kudeaketaren balantzea

### Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila

Aitortutako eskubide bateratu garbiak 295,3 milioi euro izan ziren, hau da, behin betiko aurreikuspenen % 75,3. Hala ere, kontuan hartuta Diruzaintzako geldikinari dagokion 87. artikuluko aurreikuspenak ez direla likidatutako zenbateko bilakatzen, adierazgarriagoa da behin betiko aurrekontuari artikuluko horretako aurreikuspenen zenbatekoa kenduta kalkulaturako ratioa: hala eginez gero, diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila % 80,48 izatera iritsi zen.

Bateratutako entitate bakoitzaren aurrekontuaren betetze-maila, betiere guztizko aurreikuspenetan diruzaintzako geldikinari dagozkionak sartu gabe, hau izan zen:

Udala	% 88,66
Hirigintza Gerentzia	% 57,56
Haur Eskolak	% 90,07

Diru-sarreraren osaerari dagokionez, transferentzia arruntek egiten zuten parterik handiena, diru-sarrera guztien % 30,77 izan zirelarik. Atzetik kapital transferentziak, %21,5ekin, eta zuzeneko zergak, % 17,05ekin, etorri ziren.

Zergek, zuzenekoek nahiz zeharkakoek, Udalak eskuratutako guztizko diru-sarrera likidatuen % 20,01 egin zuten. Betetze-mailari dagokionez, 1., 2., 3 eta 6. kapituluetakako diru-sarreraren aurreikuspenak gainditu dira.

Aurrekontu arrunteko diru-bilketa likido bateratua 261,9 milioi euro zen, eta 33,4 milioi kobratzeko gelditu ziren. Horrenbestez, eskubideen gauzatze- eta kobraketen betetze-portzentajea, likidatutako zenbatekoen gainean, % 88,7koa izan zen.